

Euskal AEko industria-jarduera % 3,7 hazi zen 2022ko irailean


2022ko lehen bederatzi hilabeteetan % 6,4ko hazkunde metatua izan da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko termino homogeneousan, Euskal AEko industria-produkzioa 2021eko hil berean izanikoa baino % 3,7 handiagoa izan da 2022ko irailean.

Irailean, aurreko hilabetearen, 2022ko abuztuaren, aldean, Euskal AEko industria-jarduera % 2,4 jaitsi da, urtaro-ondorioak behin zuzendurik.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2022ko iraileko indizearen bilakaerak, 2021eko irailaren aldean, portaera positiboa izan du industria-sektore handi ia guztietan. *Energian* (hor sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolio-fintzea), ekoizpen-indizea % 15,0 igo da. *Ekipo-ondasunetan*, non motordun ibilgailuen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen egitea eta aireontziak edo itsasontziak egitea sartzen diren, % 6,9 hazkundea izan da.

Kontsumo-ondasunek % 2,0ko hazkundea izan dute sektorean oro har, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 5,0ko igoera izan baitute, ezen *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 8,4ko jaitsiera izan dute. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* artean daude,

besteak beste, altzarien eta etxeke tresnen fabrikazioa. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* epigrafean honako hauek daude: elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienerako produktuen fabrikazioa, eta jantziak egitea.

Bitarteko ondasunak, berriz, berean mantendu dira (% 0,0) urte artean. Sektore horretan sartzen dira metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Iraila 2022

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	3,7	6,4	-2,4
Araba/Álava	14,5	6,2	4,5
Bizkaia	5,2	8,1	-3,6
Gipuzkoa	-3,2	5,0	-5,2
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	2,0	4,9	-3,8
Kontsumoondasun iraunkorrak	-8,4	-2,0	-8,1
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	5,0	6,7	-2,8
Ekipo-ondasunak	6,9	10,6	0,1
Bitarteko ondasunak	0,0	1,9	-1,8
Energia	15,0	15,3	1,0

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtametik behatutako azken hileraren arte metatutako aldian (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2022ko Azaroaren 3a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziago batean, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2022ko irailean igoera handienak izan dituztenak, urtetik urtera, honako hauek izan dira: *Garraio-materiala* (% 17,8), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 14,2) eta *Makineria eta ekipoa* (% 5,9). Aitzitik, sektore nagusi hauetan egin du behera produkzioak: *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 10,2 behera), *Material eta ekipa elektrikoa* (% 5,1eko jaitsiera) eta *Kautxua eta plastikoa* (% 1,6koa).

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Iraila 2022

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	1,8
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-10,2
Kautxua eta plastikoak	-1,6
Metalurgia eta produktu metalikoak	3,7
Materiala eta tresna elektrikoak	-5,1
Makineria eta tresneria	5,9
Garraio-materiala	17,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	14,2

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisunik handiena duten sektoreak

Data 2022ko Azaroaren 3a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da 2022ko irailean Araban (% 14,5 gora) eta Bizkaian (% 5,2). Gipuzkoan, aldiz, portaera negatiboa izan da, % 3,2ko jaitsierarekin.

2022KO LEHENENGO BEDERATZI HILETAKO BALANTZEA

2022ko urtarriletik irailera bitarteko aldian, industria-sektore osoan metatutako hazkundea % 6,4koa izan da. Bilakaera positibo hori hala *Energiaren* nola *Ekipo ondasunen* portaera onari zor zaio; izan ere, aurtan % 15,3ko eta % 10,6ko hazkunde metatuak dauzkagu, hurrenez hurren.

Lurraldeka, hiruretan atzematen dira tasa metatu positiboak: % 8,1 Bizkaian, % 6,2 Araban eta % 5,0 Gipuzkoan.

INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren **% 91,99ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62